

URTE BARI, BIZITZA BARI



NOZ baño zio geyagoz, itzok «Jaungoiko-Zale»k esan leikez. Baña zelan leike ori, zenbaki au «Jaungoiko-Zale» azkenengoa oingoz beintzat, izango ba'da?.. Oso érez. «Jaungoiko-Zale» ogei ta bakañen urtean sartu da, ta, Yaungoikoa'ren etsayak guzura ta gaiztakeria baseñietaraño zabaltzen alengintzen dirala ikusi dau. Bere burua mardul eta kemenez beterik ikusiaz etsai gustiei arpegi emoteko lain ba'dala oarturik, bere soñekoa aldatu, izkiñu arin eta ugariagoak eskuratu ta guzur eta gaiztakeriari guda gogoñago egiteko gertau da. Oñetarako, aldizkingi lez yañaitzea, ez dautso eretxi. Aldizkingia, berekautan esan dau, benetasunez agertu bear dau, irakurleai itzal andia sartzen dautso, ta sarñitan, itzal lañegiagaitik edo, irakurleak... urñgoan irakurteko lagatzen dau. Aldizkingia astun samara izan oi da, eta mendiak gora ta oyanean bañen ibilteko aztuntasanak alde batera itxi bear dirala uste izan dabelako, txairo, bizkor, bizi ta ausarditsu bere etsayei aurpegi emon gura dautse.

Orixo dala-ta, yaurñiki zapañadapean etsaya artzeko, sarñiagotan urtetea erabagi dau, baster gustiak arakatu gura ditu, etsai gustiak gure abeñi maite onetan ondatu arte. Al ba'leu egunoro bere urteeratxoak egingo leukez, baña, ori ezin daben eskero, astero bere etsayen kaltez yokatutea erabagi dau.

Bizitza bari bai, aldakuntzarik ez

Bizitza bari onetan baña ez uste, irakurle, mamiñez aldakuntzarik izango dabenik, geyenez be azalez, ta izenez zerbait. Mamiñez, gure ziñeste, oitura on eta izkuntza maitagarña erabiliko ditu, len lez «Euskeldunei Euskeraz» zeruko bidea

irakasteko. Ori olan izan ezkeroko bariz, azalez aldatzeak gañantzirik ez dauko.

«Ekin» izango da asteroko barriaren izena. Ekin lenian: Uzkurtz eta euskera zabaltzen; ekin geure eriko oitura ederak aldeztu ta zaintzen; ekin leunkiro ta maitezarez, inoren gofoto barik baña ekin beti, inoiz azpertz barik. Len be sari ipini izan dogu emen «Ekin» itz sendo ta kementsu ori idazpurutzat, ta ekinen-ekinan gure aldizkingia ta bazkuna onenbestian sendotu dabe. Orixe izan bedi gure asterokoaren izena: Ekin.

Dana dala, Yauna lagun, lan gogoz egingo dogu

Onango arasoetan, eten barik lan egitea da bearekoena. Gustion ikuritzat auxe egokiena dala uste dogu: *Ekin!*.. Eta onek inoz be ez dauko amarik, zeri ekin beti izango da-ta. Orez gañera, lan au *egokiro* egitea elburutzat euki bear dogu, eta oretan bakoitza aleginduko gareala-ta nago. Baña gauza ereza ez dala autortu bear dogu. *Egokiro* ekitea askok uste izaten dabe, eurak nai daben lez egitea dala, eta nai izate ori era askotakoa izaten dalako, sari askotan, gustien ustez egokiro lan egitea gauza sala dala ba'dakigu. Ez gatoz ba, gustiei atsegin emoteko usteaz, ori lurbira onetan eziña da-ta, baña bai geure gogo on gustiaz eta alegiñez, elburua lortuteko, zuzen naiz zearretara, yokatzeko, asmoaz. Besteen lanari akatzak atarateko gaitasun andirik ez da bear izaten, *umore* txar apur bat naikoa izaten da, baña ori dagienak ixiltxoago ibiliko litzakezala uste dogu, lan egiten diarduenen artean aurkituko ba'lira... Baña, *kofradi* oretan epaikaritzako yayo diranok nonbait ez dira sartzen.

Gaur gauzak dagozan lez ikusita ba, biderik egokiena, biotz zabalez besteen lanak begiratzea da, al dan neuriz laguntzea, asmo on gustiei geuk al dogunez aurerantz bultz-egitea... itz baten, maitasun batez alkartu ta gustiok batera yotea... Beti aurera yaraituteko bide bakara orixe da, besterik ez...

Zabaltzale gogoa

Ona berenez zabalkoya da-ta, asmo onak dituana zabaltzalea izan bear dau. Bestela asmo oreik biziak ez litzakez izango, ez da emokoyak be, eta emokoya ez dan asmoa, alerik emoten ez daben zugatzaren antzekoa izaten da.

Bazkide gustiok, bazkidetuko diranakaz batean, bakoitza amar laguneri bakarik, (ez da asko gero) gure asmoak su ta gar biotzeratzen aleginduko ba'giña... azterokoa ez eze egunorokoa ataratea be ez litzake gauza gaitza izango.

Egia zabaltzea, egia maite daben gustiei dagokie-ta, asteroko onen bidez Egia eririk eta baseiririk basterenetaraño zabaltzen, ez ete gara aleginduko? Bayetz nik uste. Gaur Aita Santua'k gustioi Katoliko-Ekintza'ra deitzen dausku, eta Ekintza onen egin-beara lenen-lenen egia zabaltzea da. Egunokaz Gotzaniak argitaldu daben idazki oso eder ta mamintsuak gaur egunean katolikotarak daukogun eginbearen artean kistar bizitza biotzez eta ekitez mardultzen alegintzea dala diñoskue. Geure

eginbeara betetako ba, zabaltzale gogoa geure baruan biztu daigun, indartu daigun; eta lan oneri ekin, sutzar andi baten antzera inguru gustiak argitu ta euskotar biotz gustiak, zorun-bide dan goi-maitasunez ase arte,

Laguntasuna

Idazle ta irakurleen artean artu-emon barukoak izan oi dira-ta, irakurpen onak ekarten dauskuezan ingiei maitasunez begiratu bear dautsogu, eskar onez lagundu, ta esku zabalez eutsi. Idazlea ta irakurlea, burdinbide «erailen» antzera, alkar en doan yoan bear dabe, gora-bera bardiñak, biur-une ber-berak euki bear dituez ta, bata nai bestea aldendu ala okertzen ba'da, euren gañetik ibilterik ez dago-ta. Alkartuta yokatu daigun ba, alkar poztu, alkar adoretu, ta gudari-talde zuren antzera, gustiok batera guzura ta gaiztakeria egi ta ontasunaren bidez garaitzen alegindu. Orixe da gure arloa. Eta ez fxikia gero. Ez beingoan amaitzen dana, etenbako ta betikoa baño... Baña gogoan euki daigun «gizon» izatea eginbeara betetan yakitean dagola, ta gure eginbeara orixe dala...

Ekin eta Yaraí ba, «itzetan labur eta egiñetan luze» yokatuaz, Tirso Molina'k euskotar zeinkia orixe zala ziñoan-eta; eta Ekin eta Yaraí, katolikotar izakereak berberori eskatzen dausku-ta...

Eta beste barik «Jaungoiko-Zale»tik irakurle eroapentsu gustioi agur dagitzue...

Gama'k.

AU, ORI TA BESTEA



Baltzen ikasbidea.

Asaba deritxon tokian, Apirka'n, mixiolariak Kristiñau-Ikaskintza, alde atan eurien aldia igaroten danean asten dabe. Aratsaldeko otoitz ondoren, ikastaldia izan oi dabe ta bertan gizon eta ume asko biltzen dira, Ikasbide ain beaŕekoa gogotsu ikasten. Baña txerena iñoz be ez dago lo ta, eŕi atan norbait ba'da ikastaro beaŕeko ori begi onez ikusten ez dabena, eta burua eskutau ta galerasteko asmoz, bertako agintariei buruan sartu egin dautse, seiretatik auŕera bideak-zear ibiltea argi barik galeraso egin bear dabela. Eta alantxe egin be. Yakiña, erabagi ori baltzak Kristiñau Ikasbidera yoatea galerasteaŕen izan da, baña oker urten dautse.

Baltzak, iñoz baño gogotsuago ta batek be utsik egin barik, Kristiñau Ikasbidera yoaten dira, oŕetarako agindua beateaz bakoitzak eskuetan zuzi, ilinti, orio ta batsuk krutzelu argiak eskuetan dituela. Orixe da zintso yokatzea!..

Emen Kristiñau Ikasbidea galerasteko alegiñak egiten diardue, batez be ikastoletan galerasota, baña ez irakasle ta ikasleak atzerarik ez dogu egin bear, eragospen gustien gañetik geure ziñestea zabaltzen eta ikasten alegindu bear gara, eta *Asaba'tar* begiko onein antzera, egizko *Eusko-asabataŕak* izango gara.

Kales katoliku egin ete da?

Egunokaz era batera aŕitu ta poztu gaituan izpaŕa izpaŕingietan ikusi dogu. Leikaime(monja) batek Puebla'tik idatzitako idazki baten diñonez, Plutarko Elias Kales, katolikotaŕen etsai amoraŕtua, ta ainbeste kalte Eleiza'ri Mexiko'n egin dautsonak, baipena emon ei dau, Lotazila'ren 12'n Guadalupe'ko Andra Maria'ren aintzaz egingo diran yayak egiteko. Ondiño geyago diño. Berak txaunezkin (organu) eder bat eleiza onetarako bezuzaz emon dabela, eta eunkia ospatzeko egingo dan gomutakirako txindiz lagundu dabela. Ori aurtemin, lerki edo bonba bat ipintea eleiz onetan laga ebanak?.. Ba'leiteke Kales'ek daukon alaba leikaimearen otoitzak eskar aŕigari ori lortutea. Egia da Eleiza biotzez goŕotau dabela, eta saŕitan gertaŕtu izanda, geyen goŕotau dabena, gero geyen maite izatea be, Papini ospetsuak diñonez «goŕotoa saŕitan maitasunaren ikastola ohea izaten da arduragabe ta epelkeria baño» ta. Dana dala, ori ezaugarri ona da, ta Yaungoikoa'k nai izan dayela, Eleiza'ren alde zintso yokatzen ikustea. Olangoak eŕezago biur-tzen dira *eguzkia nora* dabiltzanak baño...

Ikasi, ikasi!..

Parantze'n Lamanien, (Arles) endoreak bere eŕian ibildeunak galerasten erabagi

bat emon eban. Txahunburuak, itxason-
tziko gudalburu izandakoak, Lateñi-Iñun-
-Batza'ra yo dau erabagi onen aurka, eta
Lateñi-batzordeak endorearen agindua
ezereztu egin dau.

Erabagi onek emengo «gorioi» ikasbi-
de edera emoten dautse; emen dabiz al
daben gustia egiten ibildeunak galeras-
teko-ta. Egia esan, eskubideen aldez egi-
teko baño azkatasuna urkatzeko egoki-
agoak dira, baño ikasbidea or dago,
ikasi gura dabenentzat.

Egipto'iarén asmo

○ begiko bat. ○

Egipto'tar bultzi edo tren-bazkunak
erabagi begikoa artu dabe. Eleiz-gizon
gustiei, edozein ziñeskeratakoak dirala,
bultzietan txartel erdia ordainduta ibili al
izatea. Erabagi ori, agintariak be ontzat
emon dabe, ta datoñen urtearen lenengo-
tatik betetan asiko dira. Europa'ko «anti-
klerikal»entzat irakatsi edera, gure arte-
an lez, ziñestea gizartetik bastertu gura-
rik dabilzan bitartean, arek ago batez si-
ñeskearen garantzia autortzen dabelako.
Parantze'n be guda aurretik mixiolariei
itxas-bidegustiak dubarik ipiñi eutsiezan;
eurak egiten eben lana, lateñiaren, izen
ona zabaltzeko zala igarten ebelako non-
baif... Emengo agintariak olango asmo-
entzat buru ta biotz txikikoak dira...

Austrian be...

Viena'ko geltokian eleizatxo bat bultzi
yabeak ipiñi dabe, igande ta yayetan ibili
bear dabenak mesa entzun al izateko.
Auxe beste foki batsuetan ederto etorriko
litzake, asko aukerarik ezagaitik yaupa
entzun barik gelditu ez daitezkan. Izan be,

gorputzeko yanari ta aukerentzako ain-
beste erestasun bidezteie ipinten yaken
bitartean, ¿zer dala-ta euren gogoaz
ardura geyego ez artu? Ikasi nai daben-
ak ba'dauko non ikasi...

Lendakari ta Konstituziñoak.

Txile'ko «erepublikan» lendakari baña
autu dabe, eta lenengo egin dabena da,
Te Deum Gotzain-Eleizan abestu eragin,
Yauna'ri eskerak emoteko. Emen be len-
dakari baña daukogu, izentau ebenean
mesa entzutera yoan zan, baño Lenda-
kari danez, Yaungoikoa'ren izenik ez
dau aitatu. Ba'leiteke Alkala Zamora ka-
toliku izan ta Lendakaria ez izatea, biak
notin bat izan arén. Oin zati biko gizo-
nak *modan* dagoz, ilargiaren antzera al-
derdi bana argitan daben artean bestea
ilunetan dabenak... Bapez baño geyago
dala esan bearko ete dogu? Kolonia'n
Konstituziñoa bañiztatzea eskatu dabe,
eta len izandako Lendakaria, ta Medelin,
Kartagna ta Popayan'go Gongotzañak
eurenez senadore edo aldun izan daite-
zala eskatzeko. Emen Gongotzañak ori
baño estuago artzen ditue...

Alemania'ko sosoliztoak.

Eroma'gazko artu-emonak eta Itunbe-
na eztabaidan egoala, alemandar sozia-
listak azkatasunaren aldez yañi ziran eta
protestantañen aurka katolikotar Eleiza'
ren eskubideak aldeztu zituezan, Gopatx
edo Ordanai be azkatasun osoa emon
bear yakela azalduaz. Eztabaidan ego-
zala auxe esaten eben: «Katolikotari
bear dabena emon bear yake. Konben-
toak beareko. etsiten ba'dituez, konben-
toak emon bear yakez». Oraitik batsuk
sentzundunak be ba'dagoz.

Emen eztabaida ori dala-ta esan diran

birao ta kirtenkeriak Aldundiko ormetan idatzita gelditu ba'litzaz, toki atan sartzea be zilegi ez zan izango... Olangoxe aldunak daukoguz.

Ez da gero makala!..

Ludian dan Gotzainik zařena, Welington (Zelanda Bařia)ko Gotzain Redwood agurgaria da. Larogei ta amalau urte ditu, eta Australia'tik Irlanda'n datořen udan egingo dan Eukaristi Batzaraera yoateko asmoa dauko. Lenago be Txikago'kora yoan zan. Orixe da gaste izatea urte asko lepoan eroan ařen.

* * *

Padua'ko Andoni deunaren eriotzatik saspireungaren urtea dala ta, toki aretan yai ospetsuak izan dira. Iraia'tik Azila'ren azkenerarte bakařik, 92.292 bidezti eldu dira. Padua'bo Goterkian dagozan Andoni edo Andone izendunak berariz zerbait egin gura izan dabe, euren izenean yaupa esan eraginda. Izen ori dabena 30.000 dira. Ez da gitxi be gero...

G.



KATOLIKO - EKINTZA

1931'n urtea

Urte onek orain artekoak lez betiko agur egin dausku. Eta ainbeste gauza samingari katolikotafoi ekafi dauskulako, neuk beintzat bafiro biurtzeko ez neuskio eskatuko. Erkaldefia aitzakitza artuta, «basurdeak» baratz apain baten eginleiken friskantza baño andiagoa egin dabe. Güzalege ta Yaungoikoa'ren aginduak ostikopetuta, Eleiz, sendi ta gizonaren eskubiderik gurenenak estuntzapean ipiñi dituez, eta ori, azkatasunaren izenean!.. Esku onetan yausi da efukafia!.. Alan da be katolikotafok zintzoago, kementsuago *katolikoago* egiteko bide ba'da, yasarpen au onuratsu biurtu geinke, ori, Yaunaren laguntzaz, *geure eskuetan* dago-ta. Sartada andia emon dauskuen ezkeru esnatu gaitez! Ori egiten ezpadogu, iltamuko lo-zofoan gagozala esan geinke. Lan egin daigun ba, ta gustiok egin be. eta eten barik, olantxe bakafik aldi gitxi bafu esan al izango dogu: ¡Zorioneko yasarpena!..

Beljika'tafak katoliko ikaztolaren alde

Katoliko-Ekintzan zintso ta zurtasunez yokatzen beljika'en neufikorik gitxi dira. An legez irakaskintza azkatasuna dago; alan latefiari buruaste andi bat kentzen yako, bazkunak eta Eleizak batez be, irakastolak zabalduaz onura asko latefiari ekarten dautso. bide batez. Bidezkoa da, bafiz. ainbeste onura latefiari dakartsonari, zerbait laguntzea eta orixe egiten dau, emengo agintari barioi ikasbide edefa emonaz, ori auferapen bidea dala Beljika'k argiro erakusten dauku-ta. Baña an be sozialistak emengoen antzekoak nonbait dira-ta, Eleiza'ren eragipena ondo ezin ikusi izan dabe, eta eragipen ofen sustafak mostuteko, euren batzar baten katolikotafai la-

tefiak emoten dautsen laguntza kendu egin bear yakela eskatzea erabagi dabe. An ta emen otsoak otso. Baña laster katolikotafak esnatu dira eta batzar baten erabagi dabe, guzur eta abar katolikotar ikastolen aurka etsayak euren asmoak aufera ez dituezala eroango, orain arte lez yafaitzeko eskubide osoa daukielako. eta eskubide ofen aldez al daben gustia egiteko gertu dagozalako. Onen sustafa ezagun da non dagoan. Katolikotar gastediak eta langile bazkunak katolikotafaren artean indar ain aundia artu dabelako. sozialistok estutu egin dira eta, ofen onafia ikastoletan ikusten dabelako, katoliko ikastolenganako amofua ortik sortzen yabe. Baña beljika begikoen katoliko-edestiari begiratuta, guzufak urtergo dautsila uste dogu. Emen be beste ainbeste egin gura dabe; eurak agintari yafi ta ikastolen yabe egin; eta orain arte lez katolikotafok lotan ba'gagoz, beste guza batsuetan lez egingo dabe. ¡Lo zofotik esnatu gaitez ba, ordua da-ta!..

Izkilu-ufitzea dala-ta

Aita Santuak, batez be XV'n Benedito ta XI'n Pio'k, ainbeste bider esan dabe, bakea egiz egin gura ba'da, bafutik sortu bear dabela; biotzean gofotoa dagon artean azalean bakerik ezin egon leitekela, luzarokorik beintzat, eta ofetarako bide bat bakafa dagola, «Kristo'ren Gentza, Kristo'ren Bakaldefian» zabaltzea. Eta ofetan belutxo baño ezpada, eskertar asko be katolikotafakaz batean dagoz. Oraintsu lanbakoei laguntzeko Aita Santuak egin eban deyan be argiro ziñon, izkilutan eralgitzen dan dirutzak oingufitanunaren sustefak sendatzen zituala, eta izkiluak ufitzen alegin gustia latefiak egin bear ebela. Asmo oneik betetako gogoz bake-zaleak katoliko ta ez diranak Paris'en batzar bat egin

eben. Bertan bildu ziran, latefi askotako bake-zaleak eta katolikotafak be euren itzaldiak egin zitezuan, baña naspiltzaleak beti agertzen dira, «Action Francaise» bakaldun zaleak ofua ta naspila ungarri egin eben ta betondokoen batsuk be izan ziran.... Zuzen egozan bai izkilurik ez zala bear aldeztean, bestela bertan euki ba'ebazan... nok daki... Batzar onek argiro ta egitez agertu eban izkiluak ufitu bear dirala... ta biotzeko bakea ofetarako biderik onena dala be bai... Izan be Kristo'ren irakatsietatik aldendu ezkeru, bakerik ez dago. Emen esan geinke: *Si vis pacem... serva mandata.*

Aita Santuaren Gabon eguneko itzaldia

Urtero, Gabon zoriontsuak opatzeko yanzkordun edo kardenalak biltzen diranean, Aita Santuak itzaldi bat egin oi dau, urteko yazokun alai eta itunen bafi emonaz. Ogetabost kardenal bildu ziran eta Granito di Belmonte agurgafiak zuzendu eutson itzaldiari erantzunaz, Aita Santuak itzaldi bikain bat egin eutsen.

Aufeko egunean idazitiegian izan zan ezbiafa aitatu ondoren, Italia'n Katoliko-Ekintza'ren kaltez yazo zan ekaitza aitatu eban, baña ekaitz ori baretu zan eta Katoliko-Ekintzan zabalkundea eta Beraganako maitasuna norañokoa dan agertzeko bide izan zan. Rusia, Mexiko ta Espana'n Eleiza'k izan daben yasarpina aitatu eban, baña samin artean gauza pozgafiak be izan dira ainbeste ta ainbesten ziñesmen zintso ta kemena ikustea. Goyan aitatu dogun Espana'ko yasarpina eta bidebagekerien (ta basatikeriak batez be Eleiz ta Lekaidetxe'efetzeak, esan geinke) ekaitzaren ziñaldari ta ur-ufetik ikusi ebana, Segura kardenala, bere egitez txalogafi dana, antxe eukela kardenalaz adirazi eutsen. Gero lanik eza aitatu eban. Gauza benetan naigabetsua ta lurbira gustian zabaldu dan gaitza, ekintzan, sale-rosketan ta ogasuntzan ufitasuna oartzan da, ta gizonak gaitz au ufitzeko asmotan ibili afen, ez dabe lortuten. Orixe dala-ta, Ufita'n gai ofetzaz idazki bat Gotzain gustiei zuzendu eutsen al eben gustia lanbako, ta batez be ume erukafien alde egiteko. Eta ain ederto dei oneri erantzun dauztielako poz andia agertu eban, kardenal gustiak al ebena emonaz arpidea asi zalako. Bere aldetik zortzi mila laguneri lan emoteko eleiz eta abadetxegintzan ekin dautsola. Baña ori al izatea Yauna'ri zor dautsola-ta eskefak emoten dautsoz, Ondoren bakeatzaz iiz egin

eban. Baña gizonai bakeatzaz ez dautsoela itzik egin gura diño, len askotan itz egin dautsoelako Bere aufetikoen antzera, eta Belen'go Seintxoak askatxotik gentza eskatzen daben ezkeru, Berari entzutea naikoa dalako. Ofez gañera gizonai bakeatzaz ez dautse itzik egin gura, Bere itzak bakoitzak bere aldera ekartzen alegintzen diralako, esan ez daben eran azalduaz, eta ofez gañera gizonak bakezko itzak gogo onez artzeko gertautu ez dagozalako. Orixe dala-ta, bake ori Yaungoikoa'ri eskatzen dautsola diño, Beragandik bakafik etofi leiteke-ta, Eta beste gauza samingafi bat aitatzen dau; latefiak Yaungoikoa'gaz ez gomutatzea. Ba'da ofaitik lpar Amerika'n ikasbideak, urteko egun bat Yauna'ri egindako eskafakaitik, eskar ona agertzeko aukeratzen dabena. Onetzaz lengo zenbaki baten itz egin gendun. Eta besteak orixe egiten ezpadabe alpefekoak gizonen alegin gustiak izango dirala diño «Yaungoikoak etxea iragiten ezpadau, egiten diarduenak alpefik lan egingo dabe-ta».

Yazokun artean, pozgafiak be izan dira. Bata ifatizkin-bidez, lurbira gustiko katolikotafen artean Bere itza entzun eragitea; «Rerum Novarum» idazki bikañaren gomutaz idatzi eban langile auziatzaz «*Quadragesimo Anno*» afigafia; lkastetxe Nagosietzaz «*Deus Scientiarum Dominus*» deritxona, ta ainbeste poztasunez yakin-tsuab artu dabena. Baita Katoliko-Ekintzaz idatzi eban agiri sakon eta argia ta azkenez egunokaz argitaltzeko iragafi eta Lotazila'ren 27 argitaldu dan «*Lux Veritatis*» idazki orokor mamintsu eta samufa, Andra Maria Yaungoikoa'ren Ama dala ziñesteko egitzat iragafi eban Efeso'ko Eleiz bafuan oin amabost gizaldiko gertararen gomutaz.

Baita yazokun gomutagafien artean sartu ditu, Belarmino Deuna Eleiza'ko Irakasleen artean ipintea ta bardin Alberta Aundia deun iragafi ta Eleiza'ko Irakasleen artean ipinteko daukon asmoa. Baita pozgafi izan yakoz Kontardo Ferini Glizerio Landriani geure egunotako lkastetxe Nagusietako irakasleen onbideen gurentasuna ontzat emotea.

Egizko maitasuna

Egizko maitasuna, egitez agertzen dana bakafik da-ta, gaurko ufitasun ta lanik eza ikusirik Aita Santuak katolikotar gustioi dei egin dausku. lanbako anayen estutasunak kistar mai-

tasunez ta esku zabalez gozatzeko. Dei oneri ludiko Gotzain gustiak biotz eta esku zabalez erantzun dautse, ta gure abefi maite onetan katolikotasunak sustrai sakonak ditualako, igali edefak emon dituala be Gabon yayetan argiro ikusi dogu.

Bidebagekeri baltzenaz erbestetuta daukogun Gotzain agurgafiak ikasbide edefa emon dausku mila lauerleko lanbakoentzat emonaz.

Baña batez be Bilbao'ko Eusko-Gastediak egin dabena berariz yakingafi ta txalogafi da. Bermeo'ko afantzale, ainbeste naigabez euren bizia eunduta dabena, bafiro be yauntxoen maltzurkeriak dirala-ta, estutasun gofian aurkitu dira. Euren eskubideai amain baño gosez egotea nayago izan dabe, ta ori batez be Gabon yayetan, kistar biotzak yasan ezin dabelako, Bilbao'ko Eusko-Gastediak, afantzale gaxoen Gabonak alaituteko arpide bat zabaltzea erabagi eban. Eta eusko biotzetan sustrai sakonak dituan goi-maitasuna, ler eginda lez azaleratu da. *Ogetalau orduen bafuan sei mila ogerleko*, Bermeo'ko afantzale begikoai laguntzeko bildu dituez-ta. Gure Gotzain agurgafia be ez dago afantzale gaxoakaz aztuta ta bosteun laurleko erbestetik bialdu ditu. Ori da benetako anaitasuna, ta ez ofek zerok agotan darabilen *fraternidadea*.

Bazkun begiko ta beafekoa

Egunokaz Bilbao'n irazi dabe. «Gizarte-Kistar

·Ekintzako Eusko Batza». Sozialisten eragipenari Euskadi'n esi bat ipinteko bazkun au beafekoa izan dala edonok dakuske. Gizarte ta langile arasoak, geure abendaren zeinkiak eta kistar irakatsiak eskatzen dabenez erabagitea beafekoa da-ta, Bazkun onen lanak irakatsi egokiak emoteko izaldi batsuk egun oneitarako eraldu ditu, buruak argitu ta biotzak gaurko eginbeafetan bide zuzenez lan eragiteko. Ondo baño obeto dago ori.

Euskotar Gotzain bafia

Egun gitxi dirala, Bayona'ko Gotzain-Eleiza'n Gotzaintza artu dau beste euskotar argi batek. Yoseba - Kelemente Mathieu yauna da berau, Eroma ta Lovaina'n ikasketak egindakoa, amasapi urtetan teologi-irakaslea, Ustaritz Ikastetxean lendakari izana ta euskaltzale zintsoa, Aire ta Dax'eko Gotzain egin dabe. Amabost urtean irugafena Bayonan. Zorionak!

Eta orain,

irakurle gustioi Urte Bafi zorionsu bat opa ondoren, agur dagitzuet., «Jaungoiko-Zale» oñordeko izango dan *Asteroko* rarte. ¡Ekin eta Yafai!..

M.'tar G.

1931'ko Lotazila'n 31'n.

